

I - JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA Y ADMINISTRACIÓN FORAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

Diputación Foral de Álava

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Maiatzaren 10eko 113/2019 Foru Araua, zeinak onesten baitu Lantziegoko Udalak atzera egitea lurzoru urbanizaezinean ur biltegi bat eraikitzeko proiektuaren interes publikoa aitortzeko eskaeran eta prozedura amaitutzat jotzea

AURREKARIAK

Arabako Errioxako Ur Partzuergoak hirigintza lizentzia eskatu zuen Lantziegoko udalerriko 2 poligonoko 198 lurzatian edateko uraren biltegi berri bat eraikitzeko; lurzati hori lurzoru urbanizaezintzat dago kalifikatua.

Udalak espedientea bidali zuen (Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean 2019ko otsailaren 11n jaso), eta eskatu zuen izapidetu zedila proiektuaren interes publikoaren aitortpena, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5. a) artikuluan xedatutakoa betetzeko. Ur partzuergoak aurkeztutako justifikazio memoria erantsi zuen.

Otsailaren 20an, udalari errekerimendua egin zitzaion udaleko arkitektoak emandako txostena aurkeztu zezan, eta 2019ko otsailaren 26ko erregistroko sarrera datarekin bidali zuen. Txosten horretan, arkitektoak adierazi zuen azpiegitura erabilera publikokoa eta gizarte interesekoa zela. Horrez gain, adierazi zuen 198 lurzati (2 poligonoko A azpilurzati) lurzoru urbanizaezintzat dagoela sailkatua, eta baso intereseko J.24 zona babestutzat kalifikatuta.

Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak espedientea aztertu zuen eta, 2019ko otsailaren 28an, txostena eman zuen eta honako hau adierazi zuen: "Indarrean dagoen araudiaren arabera, 1.6.1.2. artikulua ('Babes bereziko J.1 eta babestutako J-2 landa eremuetan kalifikazio orokorrak zuzenean baimendutako eraikuntzako erabilera eta jarduerak') honako hau xedatzen du:

'1. Artikulu honetan, kalifikazio orokorrak landa eremuetan zuzenean baimendutako erabilerak arautzen dira, hau da, garapeneko planeamendurik behar ez dutenak. Aurrekoetatik aparte geratzen dira 1.6.1.4 artikuluan (Erabilerak ezartzea lurralde edota hirigintza plangintza egin baino lehen) aurreikusitako aukeretakoren baten bidez baimendu daitezkeen erabilera eta jarduerak. (...)

7. J 24 eremuan (basoen interesagatik babestutako eremua) baimendutako erabilerak.

a. Interes publikoko jarduerak, ikerketa eta dibulgazio zientifikoari edota ingurumen hezkuntzari lotuak, denak ere eremuko inguruneari dagozkionak; eremua babestea helburu dutenak, eta hezkuntza eta natur ingurunearen interpretazioa xede duten aisiako jarduerak kontzentratuak'.

1.3.1.3. artikulua ('Hirigintzako arau hauetan aurreikusten ez diren erabilerak') honako hau xedatzen du:

'1. Ondoren adierazitako sistematizazioa, baita haren garapena ere, definizio ireki eta ez-baztertzaila gisa ulertuko da. Ondorioz, Udalak tipifikatu egin ahalko ditu sistematizazio horretan espresuki aurreikusten ez diren erabilerak, hirigintzako ondorioen eta aipatutako beste erabilera batzuen arteko analogiaz.

2. Parekatze hori erreferentzia falta dela-eta posible ez denean, Udalak erabileren sailkapena aldatuko du, eta planeamendu orokorreko aldaketa gisa izapidetuko'.

1.3.1.5. artikulua ('Baimendutako erabilera, erabilera nagusia, erabilera erraztuak eta erabilera bereizgarria. Erabilera debekatua') honako hau dio 5. puntuan: '... Zehazki, erabilera debekatuak dira kalifikazioak onartzen dituen erabileren zerrendetan espresuki aipatzen ez direnak, arau orokor hauetako 1.3.1.3. eta 1.5.2.2. artikuluetan ezarritakoa gorabehera'.

2/2006 Legearen 28.5 a) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako interes publikoa adierazi ala ez erabaki baino lehen, aztertu behar da espedientean aipatzen den eraikuntza lurzatiaren hirigintza kalifikazioa egokia den ala ez.

Eskaera egin duen udalak emandako datuen arabera, ur edangarri biltegi bat eraikitzea ez dago jasota udalerriko araudiko erabilera baimenduen artean, 198 lurzatia (2 poligonoko A azpilurzatia) J 24 eremuan baitago."

Martxoaren 13an, txosten hori Lantziegoko Udalari helerazi zitzaion, hilabetez, egoki irizitako agiriak eta alegazioak aurkez zitzan, eta egindako eskaera ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea eten egin zen, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22.1. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2019ko maiatzaren 3an, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aipatutako txosten helarazpenaren erantzun idazkia jaso zen, Gorka Mauleón Olalde alkateak izenpetua, eta, haren bidez, jakinarazi zuen Lantziegoko Udalak HAPOaren aldaketa puntuala izapidetuko duela, ur araztaile erabilera baimentzeko 2 poligonoko 198 lurzatian, eta horretarako, lurzatia zerbitzu azpiegituren sistema orokor gisa kalifikatuko duela.

Horregatik guztiagatik, Lantziegoko Udalak adierazi du espediente hau eragin zuen interes publikoko aitortpen eskaeran atzera egiten duela.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Sail honek eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren arabera.

Bigarrena. Bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 94. artikuluan xedatutakoarekin: "1. Interesdun orok atzera egin ahal izango du bere eskaeran (...)

3. Bai atzera egitea, bai uko egitea, gauzatu daitezke jasota geratzeko edozein bitartekoren bidez, baldin eta aplikatzekoa den araudian aurreikusitakoaren arabera behar diren sinadurak badituzte.

4. Administrazioak atzera egitea edo uko egitea onartu, eta prozedura amaitutzat joko du (...)"

Horregatik guztiagatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Lantziegoko Udalak atzera egitea udalerriko 2 poligonoko 198 partzelan, lurzoru urbanieazezinean, ur biltegi bat eraikitzeke Arabako Errioxako Ur Partzuergoak sustatutako proiektuaren interes publikoa aitortzeko eskaeran eta AHI-096/18-J01 espedientean izapidetutako prozedura amaitutzat jotzea.

Bigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2019ko maiatzaren 10a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO